

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. <i>Promoción Económica</i>	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. <i>Gestión del Conocimiento</i>	320.203 Enplegua eta talentuen sustapena 320.203 <i>Empleo y Promoción del Talento</i>

Enplegua eta talentuen sustapena

Egungo ekonomi eta finantza krisialdia, atzeraldian den merkatua oso lehiakorra, herrialdeen zorpetze maila altuaren ondoriozko murrizketa ekonomikoa, lehiakortasunik eza, enplegua ez sortzea eta enplegua etengabe galtzea direla-eta, administrazio guztien lehentasunezko jarduketetako bat izan behar du langabeziaren kontrako borrokak.

Pertsonak trebatzea, ikasitakoa etengabe hobetzea eta etengabeko trebakuntza funtsezko balioak dira laneratzeari eta egungo eta geroko enpleguan egonkortasuna lortzeari begira.

Egungo egoerari aurre egitea estamentu politiko guztien erronka da, gehienbat etorkizunekoari. Lehiakortasuna hobetzeak berekin dakar, hobekuntza teknologikoez gain, giza kapitala hobetzea, baita sektore bakoitzaren egoera zehatzei eta espezifikoei egokitzea ere.

Krisialdi globaleko egoerak gainditzeko, pertsonen jarrerak bultzatu edo aurrera eraman behar dira, ekonomian parte hartzeko sentimendu batera bideratuta.

Giza kapitala egokitzea faktorerik garrantzitsuenetakoa da egungo eta geroko krisialdiak eta ziurgabetasuna gainditzeko.

Merkatu globalizatuan, non aurrerapen teknologikoez eta lan harremanetan aurreikusten diren aldatetaz enpresen bizitza baldintzatuko duten, kapital espezifikoa izateko baliabidea dago, giza baliabidea, sormen eta berrikuntza maila handikoa eta etorkizuneko ikuspegia duena eta ekonomi sare iraunkorra sortuko duena.

Empleo y Promoción de Talentos

La actual crisis económica y financiera, un mercado en recesión y fuertemente competitivo, los recortes económicos provocados por el alto endeudamiento de los países, la falta de competitividad, la falta de generación de empleo y la continua pérdida del mismo, provocan que la lucha contra el desempleo deba formar parte de las actuaciones prioritarias de todas las administraciones.

La capacitación de las personas, la mejora continua de los conocimientos adquiridos y la formación permanente, son valores clave para la inserción laboral y para la estabilidad en el empleo presente y futuro.

Afrontar la situación actual y principalmente futura es un reto para todos los estamentos económicos. La mejora de la competitividad conlleva además de mejoras tecnológicas, la mejora del capital humano, así como su adecuación a las situaciones concretas y específicas de cada sector

La superación de situaciones de crisis global requieren un impulso o un avance en las actitudes propias de las personas hacia un sentimiento participativo en el entramado económico.

La adecuación del capital humano es uno de los factores más relevantes para la superación de presentes y futuras situaciones de crisis e incertidumbre.

En un mercado globalizado donde la innovación, los avances tecnológicos y las variaciones previstas de las relaciones laborales, marcarán la vida de las empresas, queda el recurso de disponer de un capital específico, el humano, con grandes grados de creatividad, innovación y visión de futuro, que genere un tejido económico sostenible.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. Promoción Económica	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. Gestión del Conocimiento	320.203 Enplegua eta talentuen sustapena 320.203 Empleo y Promoción del Talento

Horretarako, berebiziko garrantzizkotzat jotzen da pertsonak egungo eta geroko egoerari aurre egiteko egokitzen laguntzea.

Giza baliabide egokiak lortzeko laguntzak, beraz, berekin dakar antolaketa-egiturak egokitzea, enpresa kultura berriak, plangintza eta antolakuntza teknika berriak eta egitura horiek gaitzeko eta espezializatzeko modua hobetzea, enpresetako aldaketei aurre egin ahal izateko.

Ekonomi eta finantza krisialdiak are zailtasun handiagoak ekarriko ditu, zalantzarik gabe, gazteak laneratzeko. Ikusi ahal izan denez, gazteen langabezi tasek eragin handiagoa izan dute krisialdian pertsona helduak deritzenenak baino, eta gazteen lan-merkatua berreskuratzea askoz motelagoa izango da aurreikuspenen arabera.

Horregatik, gazteek euren ahalmen osoa garatzeko ingurunea sortu behar dute erakundeek, trebakuntzaren arloan nahiz enpleguan.

Etorkizun oparoa nahi badugu, ekonomia aurreratua izan nahi badugu, jakintza eta gaitasun handiko pertsona gehiago behar dira eta, gainera, berritzaileak izan behar dute. Hala, ez dute aukera-galerarik izango gaitasun egokia ez izateagatik edo esperientziarik ezagatik.

Ildo horretan, gazteen laneratzeari bultzatu beharra dago, enplegatutako edo enpresari gisa, hezkuntzatik eta heziketatik lan-merkatutarako trantsizioa erraztuz eta lagunduz.

Talentua sustatu behar da, eta gazteen talentua erakartzeko eta atxikitze ingurune mesedegarria bultzatu eta mesedetu. Gainera, balio erantsi altua daukaten lanpostuei, Bizkaiko ekoizpen-ehundurak behar duen aldaketan gehien lagundu ahal dutenak, arreta berezia eman behar zaie.

Para ello, el apoyo a la adecuación de las personas para afrontar la situación actual y futura se considera de capital importancia.

El apoyo a la consecución de unos recursos humanos adecuados implica, por tanto, una adecuación de las estructuras organizativas, nuevas culturas empresariales, nuevas técnicas de planificación y organización, mejora de la capacitación y especialización de dichas estructuras que permitan afrontar los cambios en las empresas.

Sin duda, la crisis económica y financiera ha dificultado aún más el ingreso de las personas jóvenes al mercado laboral. Las tasas de desempleo juvenil han demostrado ser más sensibles a la crisis que las tasas de las denominadas personas maduras, y la recuperación del mercado laboral juvenil, según las previsiones, va a ser mucho más lenta.

Por ello desde las instituciones se ha de crear un entorno en el que la persona joven pueda desarrollar todo su potencial, tanto en el ámbito de la formación, como en el empleo.

Si se quiere prosperar en el futuro, si se pretende ser una economía avanzada, se necesitan aun más personas que tengan altos conocimientos y capacidades, y, además sean innovadoras, no dando opción a la pérdida de oportunidades por no tener las cualificaciones adecuadas o por falta de experiencia.

En este sentido, se debe apoyar la integración de las personas jóvenes en el mercado laboral, como empleadas o como empresarias, facilitando y apoyando la transición desde la educación y la formación al mercado laboral.

Es necesario promover el talento, impulsar y favorecer un entorno favorable para la atracción y retención del talento entre las personas jóvenes, así como prestar una atención especial a los puestos de trabajo de alto valor añadido y que más pueden aportar al cambio de tejido productivo que necesita Bizkaia



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. Promoción Económica	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. Gestión del Conocimiento	320.203 Enplegua eta talentuen sustapena 320.203 Empleo y Promoción del Talento

Egungo enpleguaren egoeran, langabezi tasa handiak izanik, zenbait talde laneratzera, zenbait kasutan, egingarriagoa eta iraunkorragoa da enpresari autonomoaren edo enpresa kolektibo txikiko enpresariaren formulak erabiltzen badira inoren konturako laneratzera jotzen bada baino. Ekintzaile kultura eta enpresa sustatzaileek euren negozio-idea garatzen laguntza funtsezko jarduketak dira enplegu politiken garapenean.

Horregatik, egungo testuinguruan, hauexek dira egitarau honetako helburu orokorrak:

Autoenplegua eta enpresen sorkuntza bultzatzea, enpresa txikien sorrera lortzeko politika aktiboak aplikatuz, negozio-idea sortzen denetik martxan jarri arte.

Enpresa proiektuak sortzea eta abiaraztea bultzatzea sustatzaileei aholkuak eta trebakuntza emanez enpresa eratzeko beharrezkoak diren arloetan eta martxan jartzen deneko lehen urtean laguntza emanez.

Gazteen enplegua sustatzea, kontrataziorako pizgarriak emanez eta lehen lana eskuratzea erraztuz.

Langile gazteak duen titulazioari dagokion lanbidean aritzeko beharrezko jakintza praktikoa lortzea. Hala, irakaskuntza aldi dagoeneko ikasia duena osatzeko.

Giza baliabideak merkatuaren eskakizun berrietara egokitzea erraztea trebakuntzaren bidez. Hartara, jarduera independenteek sorrera ahalbidetu eta lanpostuak sortzeko laguntza emango da.

En la actual coyuntura laboral, con unas tasas de desempleo elevadas existen colectivos de personas, cuya inserción es, en algunos casos, más factible y sostenible si se hace mediante fórmulas de empresariado autónomo o de pequeña empresa colectiva, que si se pretende recurrir a la inserción por cuenta ajena. Potenciar la cultura emprendedora y ayudar a las y los promotores empresariales en el desarrollo de su idea de negocio, son actuaciones fundamentales en el desarrollo de las políticas de empleo..

Por ello y en el contexto actual, los objetivos generales de este programa son:

Promocionar el autoempleo y la creación de empresas al objeto de lograr la generación de pequeñas empresas aplicando políticas activas, desde la fase de idea de negocio hasta la puesta en marcha.

Apoyar la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales, a través del asesoramiento y la formación, a las personas promotoras en áreas necesarias para la constitución de la empresa y a través del apoyo al primer año de funcionamiento

Fomentar la empleabilidad de las personas jóvenes incentivando la contratación y facilitando el acceso al primer empleo.

Lograr que la persona joven trabajadora adquiera los conocimientos prácticos necesarios para el ejercicio de la profesión cuya titulación ostenta, para completar de esta forma los conocimientos teóricos ya adquiridos durante el período de enseñanza.

Facilitar, por medio de la formación, la adaptación de los recursos humanos a las nuevas exigencias del mercado, posibilitando la creación de actividades independientes y contribuyendo a creación de puestos de trabajo.



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. Promoción Económica	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. Gestión del Conocimiento	320.203 Enplegua eta talentuen sustapena 320.203 Empleo y Promoción del Talento

Heziketa araututik lan-bizitzarako trantsizioa erraztea eta gazteen trebakuntza praktikoa eta lanbide eta hizkuntza gaitasunak hobetzea, enpresa batean trebakuntza praktikoa eginez harena bezalakoa ez den kultur ingurune batean.

Bikaintasunaren arloko trebakuntza bultzatzea funtsezko tresna da unibertsitateko lizentziatura eskuratu berri duten gazteek goi mailako jakintza eta antolakuntza eta ekintzaile kultura lor ditzaten, ondoren Bizkaiko enpresetan aplikatzeko modukoak.

Gazte talentua sustatzea, hobekuntza profesionala bultzatuz, espezializazio-aretoen bidez, unibertsitate eta ikastetxe ospetsuetan ikastaroak emanez, eta nazioartekotze praktikak eginez.

Facilitar la transición de la formación reglada a la vida laboral y mejorar la formación práctica de las personas jóvenes, sus aptitudes y competencias profesionales y lingüísticas, a través de la formación práctica en una empresa, dentro de un entorno cultural distinto al suyo .

Impulsar la formación en excelencia que constituye un instrumento esencial para que la juventud recién licenciada universitaria, logre un nivel de conocimiento y una cultura organizativa y emprendedora de nivel superior, aplicable posteriormente en las empresas de Bizkaia.

Promover el talento juvenil incentivando el perfeccionamiento profesional mediante aulas de especialización, cursos en universidades y centros de prestigio así como prácticas de internacionalización.